Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

4440

AGINDUA, 2009ko martxoaren 30ekoa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena; horren bitartez, EB1-0641/95-LC-031 espediente-zenbakiarekin babes ofizialekotzat kalifikatuta dagoen eta Enrique Álvarez Olego jaunaren eta Olga Franco Barredo andrearen titulartasunekoa den Aguraingo Errotalde Plazako 8 zenbakiko etxebizitza saltzeko eskaintza onartzen da.

AURREKARIAK

1.– Enrique Álvarez Olego jauna eta Olga Franco Barredo andrea EB1-0641/95-LC-031 espediente-zenbakiarekin babes ofizialekotzat kalifikatuta dagoen Aguraingo Errotalde Plazako 8 zenbakiko etxebizitzaren titularrak dira, Bilboko Elkargoko notario Francisco de Asís Jiménez Velasco jaunaren aurrean bere protokoloaren 462 zenbakiarekin 1997ko abenduaren 22an sinatutako salerosketa-eskritura publikoaren bitartez espedientean egiaztatzen denaren arabera.

2.– Etxebizitzaren jabe Enrique Álvarez Olego jaunak eta Olga Franco Barredo andreak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari edota Etxebizitza Alokairuetarako Sozietate Publikoa, SAri eskaini diete etxebizitza, Arabako Lurralde Ordezkaritzan 2008ko azaroaren 12an aurkeztutako idazkiaren bitartez.

3.– Lehen aurrekarian deskribatutako babes ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioa, salerosketa-eskritura publikoa egiten denean indarrean dagoen gehieneko prezioa izango da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua da organo eskuduna egintza hori gauzatzeko, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 15eko 373/2005 Dekretuari jarraiki, babes ofizialeko etxebizitzen erregimen juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 27.2 artikuluari dagokionez.

2.– Babes ofizialeko etxebizitzen erregimen juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 27.2 artikuluak adierazten du Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak onartu ditzakeela, da-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

4440

ORDEN de 30 de marzo de 2009, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, mediante la que se acepta el ofrecimiento de venta de la vivienda sita en el municipio de Salvatierra, Pza. Errotalde, 8, calificada como protección oficial bajo el número de expediente EB1-0641/95-LC-031, titularidad de D. Enrique Álvarez Olego y Dña. Olga Franco Barredo.

ANTECEDENTES DE HECHO

1.– D. Enrique Álvarez Olego y Dña. Olga Franco Barredo son titulares de la vivienda de protección oficial con número de expediente EB1-0641/95-LC-031, sita en el municipio de Salvatierra, Pza. Errotalde, 8, según se acredita en el expediente mediante escritura pública de compraventa otorgada con fecha 22 de diciembre de 1997, ante el Notario del Ilustre Colegio de Bilbao, D. Francisco de Asís Jiménez Velasco, al número 462 de su protocolo.

2.– Los citados propietarios de la vivienda, D. Enrique Álvarez Olego y Dña. Olga Franco Barredo, han llevado a cabo ofrecimiento de venta de la misma, a favor de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco e indistintamente a favor de la Sociedad Pública de Gestión de Viviendas en Alquiler, S.A., mediante escrito presentado ante la Delegación Territorial de Álava con fecha 12 de noviembre de 2008.

3.– El precio máximo de la vivienda de protección oficial descrita en el antecedente de hecho primero será el precio máximo vigente en la fecha de elevación a escritura pública de la compraventa.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

1.– El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales es competente para llevar a cabo este acto, de conformidad con lo establecido en el Decreto 373/2005, de 15 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales en relación con el artículo 27.2 del Decreto 39/2008, de 4 de marzo, sobre régimen jurídico de viviendas de protección pública y medidas financieras en materia de vivienda y suelo.

2.– El artículo 27.2 del antedicho Decreto 39/2008, de 4 de marzo, sobre régimen jurídico de viviendas de protección pública y medidas financieras en materia de vivienda y suelo dispone que será el Consejero del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales quien

gokion aginduaren bidez, babes ofizialeko etxebizitzak erosteko eskaintzak.

3.– Uztailaren 24ko 126/2007 Dekretuak, batetik, «Sociedad Pública de Gestión de Viviendas en Alquiler / Etxebizitza Alokairuetarako Sozietate Publikoa, SA» sortzen du eta, bestetik, abenduaren 30eko 316/2002 Dekretua eta hura garatzeko araudia eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 15eko 373/2005 Dekretua aldatzen ditu. 126/2007 Dekretuak 3.1.VI artikuluan ezartzen du sozietatearen xedea, besteak beste, izango dela etxebizitzak transmititzeko bitartekaritza eta haien geroztiko alokairua edo salmenta egiteko jarduerei dagokienez, babesa ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari; betiere, babes ofizialeko etxebizitzei buruzko araudiarekin bat, etxebizitzon titularrek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren esku jarri behar badituzte.

4.– Babes publikoko etxebizitzen erregimen juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren arloko finantzaneurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuak 27.1 artikuluan ezartzen duenez, edozein unetan, babes ofizialeko etxebizitzaren titularrak haren salmenta eskaini diezaioke Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari, bai Euskal Autonomia Erkidegoak bai haren menpeko Erakunde Administrazioaren beste edozein entitatek erosteko.

Aipatutako legezko aginduak eta oro har aplikatzekoak diren bateragarriak aztertuta, honako hau

EBATZI DUT:

Lehena.– EB1-0641/95-LC-031 espediente-zenbakiarekin babes ofizialeko erregimen orokorrekotzat kalifikatuta eta Aguraingo Errotalde Plazako 8 zenbakian dagoen etxebizitza saltzeko eskaintza onartzea; eskaintza etxebizitzaren jabe Enrique Álvarez Olego jaunak eta Olga Franco Barredo andreak egin zuten.

Bigarrena.– Eskainitako etxebizitza hori Etxebizitza Alokairuetarako Sozietate Publikoa SA sozietateak erosiko du.

Agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuari hilabeteko epearen barruan, jakinarazpen hau egin eta hurrengo egunetik hasita, edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, jakinarazpen hau egin eta hurrengo egunetik hasita, bi hileko epearen barruan.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko martxoaren 30a.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

mediante la correspondiente Orden podrá aceptar las ofertas de venta de viviendas de protección oficial.

3.– El Decreto 126/2007, de 24 de julio, por el que se acuerda la creación de la Sociedad Pública de Gestión de Viviendas en Alquiler y se modifica el Decreto 316/2002, de 30 de diciembre y su normativa de desarrollo y el Decreto 373/2005, de 15 de noviembre por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales establece en su artículo 3.1.VI que la citada sociedad tendrá como objeto social, entre otros, dar soporte a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en las actuaciones de intermediación en las transmisiones de viviendas y la adquisición y posterior venta o alquiler de las mismas, en los casos en los que según la normativa de viviendas de protección oficial el titular de aquéllas deba ponerlas a disposición de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

4.– El artículo 27.1 del Decreto 39/2008, de 4 de marzo, sobre régimen jurídico de las viviendas de protección pública y medidas financieras en materia de vivienda y suelo establece que los titulares de vivienda de protección oficial pueden ofrecer en venta dicha vivienda al Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales para su adquisición bien por la Comunidad Autónoma del País Vasco bien por cualquier otra Entidad de la Administración institucional de ella dependiente.

A la vista de los preceptos legales citados, demás concordantes y de general aplicación,

RESUELVO:

Primero.– Aceptar el ofrecimiento de venta de la vivienda de protección oficial de régimen general calificada como tal bajo el número de expediente EB1-0641/95-LC-031, sita en el municipio de Salvatierra, Pza. Errotalde, 8, llevado a cabo por sus propietarios, D. Enrique Álvarez Olego y Dña. Olga Franco Barredo.

Segundo.– La vivienda ofrecida será adquirida por la Sociedad Pública de Gestión de Viviendas en Alquiler, S.A.

Contra la presente Orden cabe interponer recurso potestativo de reposición en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación ante el Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales o directamente recurso contencioso-administrativo, que habrá de ser interpuesto ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia, en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de marzo de 2009.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.